

Obabakoak*

Pello Esnal

Lehen ere ekarria dugu ZUTABERA euskal literaturako libururik: Uztapideren *Lengo egunak gogoan*, 12. alean; *Auspoa* liburu-saila, 14. alean; Atañoen *Odol-kutsua*, 15.ean. Hizkuntz irakas-kuntzaren metodologiakoak ez izanik ere, euskara-irakasleon euskara lantzeko egokiak eta zenbait ikaslerekin erabiltzeko aproposak iruditu bait zitzaizkigun. Oraingo honetan Bernardo Atxagaren azken emaitza bikaina dugu aipagai; baita, bide batez, egile beraren beste zenbait lan ere.

Asmo bat baino gehiago izan dezake euskara-irakasleak euskal liburu bat irakurtzean. Bere eguneroko lanak eragotz ere diezaioke behin baino gehiagotan euskal liburu bat patxadaz irakurtzea, euskara bera aztertzen ohituak dituen irakasle-begiak hitzetan tratatuko zaizkiolako behin eta berriro. Nekez gertatuko zaio horrelakorik Bernardo Atxagarekin, hain dira itsugarri honen lumari darizkion lilura eta xarma, gaizki erabilitako ergatibo pluralen eta abarren gainetik. Eta euskara bera aztertu nahi balu, bigarren aldiz hasi beharko du irakurtzen, hizkuntza bera aztertzearekin batera liburu ederragoa gertatuko zaiolarik.

Literatur lan batek osagai eta alderdi asko ditu, bakarka ez baina denek elka-

rrekin batera taxutzen dutenak lanaren eduki eta esanahi oso eta betea. Baina aztertu, bakarka aztertu behar; eta horien berri ematerakoan ere bide beretsutik jo besterik ez dago.

Guk hemen euskararen ahozko erregistroak *Obabakoak* liburuan duen presentzia azpimarratu nahi dugu batipat, euskararen irakaskuntzan izan dezakeen aplikazioa ere azaletik aipatuz.

Ezaguna genuen lehendik ere Bernardok euskal prosa nabarduraz, erregistroz, doinu anitzez, kontrapuntuz eta abarrez hornitzen egindako ahalegina, hainbat monotonía antzu eta horma estutik ihesi. Gogoratu besterik ez daukagu, esate baterako, *Bi anai* nobelan euskalkiekin jokatzu lortutako efektua (oroitu sugearen kontakizunaz) edo *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* erlatuko Old Martinen hizkera bizi eta berezia, ingelesezko hitzez zipristindua, *Obabakoak* honetan «Ezkontaurreko izenez, Laura Sligo» kontakizunean ere (235-255 orr.) aurkituko duguna, bestalde.

Euskal prosa mila melodiaz eta baliabide ugariz aberasteko eginahal horretan ezin falta, jakina, euskararen ahozko erregistroaren ekarria ere. Nabarmena da horren presentzia Atxagaren litera-

* Bernardo Atxaga: «Obabakoak», Donostia, Erein, 1988, 403 orr.

turgintzan. Berehala sumatuko du asteasuarraren idazlanetan ahozko narra-tzailearen doinua bere testuak irakurtzen entzun dion irakurleak, dela Euskadi Irra-tiko zenbait saiotan (horietako batzuk plazaratzeaz ditu HABEk euskaldun-tzearen goi-mailako entzunezko langaien artean), dela *Henri Bengoa: inventarium* izeneko obra eszenifikatua, dela...

Bernardo Atxagak berak ere aitortu du bere ahozko euskararekiko atxiki-mendua. Horren adierazgarri, hona he-men bi pasarte: ezkerreko zutabekoa *Pello Errotaren bizitza, bere alabak kon-tatua* liburutik dago hartua (Auspoa 32, 148-150 orr.) eta eskuinekoa *Bi anaia* li-burutik (Erein, literatura-saila 22, 9. or.)

Gero, Oyartzun-en bazegoala mediku on bat, eta arengana bialdu zuan, gure anai Migel Antonekin.

Arek ala esan omen zuan:

— Gona zar bat adabatuko litzake, bañan au ez, neskatxa au ez.

Eta ala etorri ziran.

Urrena, berriz, Lazkao-n bazegoala bar-beroren bat, eta an ere izan zuan. Santa Marina bespera zan. Anayak, astoaren gañean eraman zuan estazioraño, gero tren-nean, ta berriz ere astoan.

Bañan an ere desengañua:

— Ankak aunditzen astean, azkar ibilli neskatxa onekin —esan omen zion anayari.

Anaya negarrez asi omen zan, ta arrebak antzemango ziolako bildurrez, ez omen zan arrebagana bereala azaldu, puxka ba-tean astoarekin ukulluan-edo egon zan.

Azaldu zanean, ordea, azkar konturatu zan arreba anayak begiak aundituta zeuzka-la, bañan etzion ezer esan. Etzan tonta, ez.

Erremeyorik etzuala etsi zuan gizajoak, eta gogoratzen zitzaionean, batzuetan konforme ta besteetan triste jartzen zan.

Egun batean, anayak leyotik baratzara begira ta negarrez arkitu zuan. Ala galdetu zion:

— Zer den, Dolorex?

Ta arek:

— Ez diat ezer ere, bañan pentsatzen na-txiok aurki lur orren azpira joan bearra na-goala emeretzi urterekin...

Ba omen zen neska gazte bat gaixotu zena eta medikuarengana eraman zutena. Eta medikuak hala esan omen zuen:

— Gona zahar bat adabatuko litzateke, baina hau ez, neskatxa hau ez.

Neskari ez omen zioten ezer aipatu, eta barbero batengana eraman omen zuten harek sendatuko zuelakoan. Hala esan omen zuen barberoak:

— Hankak haunditzen hastean, azkar ibili neskatxa honekin.

Orduan ere ez omen zioten ezer esan eta etxera ekarri zuten astoaren gainean.

Baina egunak etorri eta egunak joan, neska konturatu egin omen zen. Erremediorik ez zuela etsi omen zuen, eta hori go-goratzen zitzaionean batzuetan konforme eta besteetan triste jartzen omen zen.

Egun batean, anaiak leihotik baratzara begira eta negarrez aurkitu omen zuen, eta hola galdetu:

— Zer dun, arreba?

Eta berak:

— Ez diat ezer ere, baina pentsatzen nia-gok aurki lur horren azpira joan beharrean nagoela hemeretzi urterekin...

Antonio Zavalak, berriz, honela dio *tatua* liburuaren hitzaurrean (9-10 orr.) *Pello Errotaren bizitza, bere alabak kon-*

Makiña bat arratsalde goxo pasa izan degu bera kontari ta ni entzule. Ta obe bearrez, bereala asi nintzan magnetofon bat eramaten. Arrezkero, arek jasotzen zuan gure berrike-ta guzia.

Gero, etxerakoan, ariak jaso paperera pasatzen nuan. Ori izan da nere lana, besterik ez. Aldaketa bat sartu da: ariak gure alkar-izketa jasotzen zuan, alegia nere galdeerak eta Mikelaren erantzunak; ta liburua moldatzeko, alkar-izketan esana kontaeran jarri bear izan det noski.

Esan bearrik ez, Mikelaren itz bat edo esaera bat ere ez dedala, ezin bestean baizik, ikutu.

Beraz, liburu au Mikelari zor zaio oso osorik. Orregatik izena du «Pello Errotaren bizi-tza, bere alabak kontatua».

Beraz, Atxaga asteasuarrak beste asteasuar baten ahozko kontakizuna hartu du oinarri eta gidari bere idatzizko kontakizuna moldatzeko. Eta hori, ez soilik Obabak Asteasurekin duen zerikusiagatik; baita berari ondokoen —eta hondokoen— zaion euskaragatik ere. Eta batere behartu gabe txertatu du lehenengo kontakizuna bigarrean. Ez adabakiaren

nabarmenkeriarik, ez erantsitakoaren arrastorik, pieza bakarra osatzen dute biek; hain dira doinu bereko, hain dago ahozko euskarari atxikia liburu osoa. Eta berdin esan dezakegu *Obabakoak* liburuaz ere. Konturatua egon nonbait Bernardo, Mitxelenak Alzoren *Estudios sobre el euskera hablado* liburuaren hitzaurrean idatziaz:

«De sus investigaciones (Alzorenak, alegia), de las que los presentes trabajos son excelente muestra, podemos esperar en el orden teórico un mejor conocimiento de aspectos importantes de la lengua vasca y en el práctico una mayor comprensión de lo popular que puede tener reflejo en el cultivo literario del idioma.»

Eta euskararen ahozko erregistroaren doinua entzungo dugu *Obabakoak* liburuan zehar; baita ahozko euskarak hain bereak dituen ezaugarriak ikusi ere non-nahi. Jaso ditzagun hemen bi: elipsia eta

aditz ezjokatua (aditzak laguntzailerik gabe eta aditz-izenak).

Esan aditzaren elipsira mugatuko gara elipsiaren arloan. Hona hemen bi pasarte:

«Ikusi al duk zein harroxko jarri zaigun?» hasi zen, eta hortik aurrera zaila egin zitzaidan ixiltzea. Berak halako seme bat izanez gero ez liokeela bizitzarik barkatuko; halako elbarriak sufritzeko bakarrik jaiotzen zirela, sufritzeko eta sufri erazteko; eta ea zer egiten zuen auzo hartan, auzo hura bota beharra zegoela, eta botatzerakoan makinak garbi zezatela *condesito* hura ere.

Daniel bere onera etor zedin, enanoaren jokaera zuritzeko ahaleginak egiten hasi nintzen. Alde batera, konprenitzekoa zela; zen bezalakoa izanik juzku txarrak egingo zituela jendeaz; maltzurra irudituko zitzaiola edonoren jakin mina. (172)

Nire jakituria ez zela oso handia, erantzun nion, haren bi edo hiru soneto bakarrik ezagutzen nituela. Baina baietz, poeta handi bat behar zuela izan Gongoraren epitafio bat merezi izateko. Eta jakitun nintzela, hori bai, haren heriotzeko gorabeheraz; nola, erreginarekin ezkutuko maitasunak ditueneko zurrumuruak zebiltzanean, erregina horren eta Felipe IV. bere senarraren aurrean oso modu berezian paseatu zen. Errealeko txanponez jositako kapa batekin eta *Nire maitasunak errealak dira* zioen *lemma* bat eramanetz, alegia. Nola portaera hori burlatatzat jo zuen erregeak, eta gau hartan bertan hil erazi. (173)

Era berean, behin baino gehiagotan ikusiko dugu aditza laguntzailerik gabe, batez ere *izan* eta Villasantek bere *Sintaxis de la oración simple* liburuan *verbos*

modales que expresan necesidad, voluntad y pensamiento deitutakoak: *behar*, *nahi* eta *uste*. Hona hemen adibide batzuk:

- Lana egin behar gau eta egun koilarearekin galdutakoa berdintzeko. (220)
- Hala ere ezin jakin. (223)
- Gure patua onartu behar, ezinbestean. Heriotza gure bila datorrela? Bada guk hil egin behar. (224)
- Jakina, hik heure lana azaldu nahi. (224)
- Lana egin ahal izateko ere jendea sobornatu behar. (225)
- Nik uste aiton hau hi bezalakoa dela. (231)
- Merezi baitu, nik uste. (233)
- Barruan daudenak atera egin nahi, eta kanpoan daudenak, berriz, sartu. (262)
- eta arratsero, jantzi kuloteak, jantzi kolorinetako elastikua, eta... (264)
- Nola jostaketa den, bada serio hartu behar. (270)
- Ezin bilaketa horrekin jarraitu aipatutako lanak idatzita utzi aurretik. (277)

Aditz-izena ere (nominalizazioa, alegia) aditz ezjokatua izaki, non aukeraturik badago aipagai dugun liburuan. Bai-

na denak ezin ekarri eta baldintz-kutsua duten *-RA* kasura mugatuko gara.

- Apalago izatera, Werfell ingeniariak ez zukeen halako gaizki hartu izango Obabako bizi-modua... (80)
- Bertako bezero edo nagusiei sinestera, hara ezkerreko jendea bakarrik biltzen zen... (146)
- Herrikoa izatera ez zela horrenbeste ausartuko iruditu zitzaidan. (168)
- Atea ixteko irrikitan zegoela iruditu zitzaidan, eta agur egin nion, berak hala nahi izatera segituko genuela negua pasa eta gero. (185)
- Izanez ere, muskerrak buruko muinen zale zirela esaten baitziguten Obaba hartan; ahal izatera, jendearen belarri zulotik artu eta buruan gelditzen zirela... (203)
- Muskerra mutilaren belarritik sartu izatera, honek hautsia eduki behar zuen tinpanoa, nahi eta nahi ez. (204)
- Egia izatera, Europan ezagututako lehen kasua izango huake. (206)
- Eurite amazoniarren garaia oso hurbil zegoela etortzen zitzaidan behin eta berriro burura, eta azkar ez ibiltzera Unine goian gelditu behar izango genuela... (239)
- Halare, hiltzeko ikararik ez neukala pentsatzen nuen, maitatzen nuen andrearen ondoan nengoela, eta ni hiltzera ere jakingo zuela Cesarrek Sheldon doktorea aurkitzen... (243)
- Egunez izatera, handik begira jarri eta haran zabal bat ikusi ahal izango genukeen gure aurrean... (262-263)
- Publizitatea prospektoak zioena egia izatera, tortoken irlan ez zegoen ehun eta hirurogeitamar zentimetrotatik gorako biztanlerik. (297)
- ...eta hala gertatzera taldeko beste guztien eskuetan jarriko haiz... (349-350)
- Ordea, sufrimendu latzagoa, haundiena, zeukan zai hilobi hartan gelditzera... (351)
- Egia aitortzera, ez dut sekula Rhineko ardorik edan. (353)
- Egia esatera, ikaratuta jaitsi naiz autotik... (360)
- *Striat* eta *severe*, *muy friend*, esan izango zukeen Smith jaunak han egotera. (383)

Baina ahozko euskara *Obabakoak* osoan dago presente, ez zenbait hizkuntz formatan bakarrik; izan ere, zerbait azalduko edo noizbehinkako, adabaki edo aitzakia huts baino gehiago bait du libururak ahozko euskara: funtsezko osagai eta muin. Horrexegatik gertatzen zaio

euskaldunzaharrari hain irakurgarri, euskara ikasten ari denari hain bitxi eta denei bizi-bizi eta gozo-gozoa.

Horiek horrela, alde askotatik dugu *Obabakoak* euskara-irakaskuntzan erabilgarri. Ezer baino lehen, euskal literaturak eman duen libururik behineneko-

tariko bat dugulako, zenbait adituk adieraziaz duenez. (Esate baterako, gogora dezagun Angel Lertxundi «Obabaren garrantziaz» izenburupean *El Diario Vasco*-ko 96. Zabalik alean idatzia (1988ko urriaren 19an): hemendik aurrera, *Obabakoak* liburuaren ondoren, ez direla gauzak berdinak izango gure narratibagintzan eta *Obabakoak* derrigorrezko erreferentzi puntu izango dela aurrerantzean.) Horretaz gain, egoki baino egokiago etorriko zaio irakasleari ahozko euskara birraurkitu eta dagokion tokian jartzeko, eta, zer esanik ez, bere euskara aberasteko; besterik ez bada ere, hiztegi-gozatu eta hornitzeko; ez bait da ahaztu behar Mitxelenaren *Orotariko euskal hiztegia* mardulean Atxagaren lau lan daudela hustuta; besteak beste, *Obabakoak* honetan jasoa dagoen «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena».

Baina ez diogu asko *Obabakoak* euskararen irakaskuntzan arrazoi horiengatik dela erabilgarri esatean. Beste hainbeste esan daiteke zenbait literatur lanez ere. Forma baino gehiago bait da Atxagaren liburu nagusia: edukiz betea eta liluragarria; baita erlatu osagarritz moldatua ere. Eta ez gara *Azken hitzaren bila* osatzen duten erlatuez bakarrik ari; berdin esan bait daiteke elkarren osagarri diren *Camilo Lizardi* eta *Joxe Francisco* erlatuei buruz, eta *Gauero aterako nintzateke paseatzera* erlatuko bi zatiez

edo *Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan, eta bat gehiago* lanari buruz ere. Eta erlatu horiekin bezala gertatzen zaigu beste guztiekin ere: denak direla elkarren osagarri eta aberasgarri, batak bestera eramaten gaituela etengabeko joan-etorrian...

Baina bada besterik ere: *Obabakoak* liburuaren erlatu bakoitza besteen osagarri eta oihartzun den bezala bait da *Obabakoak* Atxagaren obra osoarekiko; eta Bernardoren lan guztiak *Obabakoak* honetan ez badaude ere, hemen daude askoren oihartzuna eta taupada eta arrastoa eta azken hitza. Eta irakurleak (euskara-irakasleak eta ikasleak). *Jakin* aldizkariaren 25. alera joko du *Post tenebras spero lucem* lehen erlatuaren bila (ba ote da ariketa politagorik bi erlatuak, *Obabakoak* honetakoa eta *Jakinek*oa, alderatzea baino, Bernardoren ahalegina ikusi eta sorkuntz lana aztertzeke?) eta berdin egingo du *Jose Francisco* erlatuarekin; edo *Henri Bengoa: inventarium* audio-zintara joko du hango eduki osoa *Obabakoak* liburuko zenbait zatiren argitan entzuteko... Ez ote dira guzti hauek euskararen irakaskuntzan erabiltzeko ariketa egokiak eta etekin handikoak?

Besterik gabe bukatzera goaz *Obabakoak* lan ederraren aipamena. Ez ahal da izango Bernardo Atxagaren azkenekoa! Izango ahal du eraginik euskal literaturan, literaturaren onerako eta euskararen irakaskuntzaren mesedetan!